


**BIZITEGI ERAIKINA**  
B MAILA**FRANTZIA PASEALEKUA 2**

Egilea eta data: Jose de Gurruchaga, 1914.

**Deskribapena**

Kantoiaren kokatutako eraikinak etxadi erdia okupatzen du, hiru fatxadatan oso garatua, eta Groseko zabalduaren lehen lerroan. Konposizio eklektiko garbia. Bertan, antolakuntza klasizista batean oinarrituz, 5. oineko errotonden eta galeriaren aitzinamendua nabarmetzen da, hegal pilastretatik abiatzen diren mentsula handien bidez eutsitako hegalkinetan. Balkoien serie uniformearekin batera, elementu hauek harrizko harlanduari itzalak eta erliebea ematen dizkiote eraikuntzako bolumen handi batean. Jatorrizko proiektuan eraikinak bastardeko oin bat, bost oin eta mantsardapeko seigarren oina –gaur egun atzeraemangunean egina– zituen. Bestalde, errotondan egindako gorputzak bakarrik geratzen diren hiru dorrez akabatua zegoen. Dorre horietako batek mehelin hormarekiko eraikinaren irtengunean kantoi berezia osatzen zuen (gaur egun 6. oinean dagoen galeria zirkularra ez zen aurrekusi jatorrizko proiektuan). Fatxadako lehen zatiak ere ez du eraikuntzako gainerako zatien tratamendu bera, haren bolumenaren aitzinamendua nabarmentzeko asmoz. Baina eraikinaren elementu esanguratsuena sarreran aurkitzen da, eraikina alde batetik bestera gurutzatzen duen atarian, kalean behera doan aldapari jarraituz. Materialetan ere igarobidea barruko kale gisa sailkatuta dago. Bertan hasten dira eskailerak lau etxebizitzako oin bakoitzera igotzeko. Bi patio zentral ditu.

**Babes erregimena**

## 1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baioen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

## 2.- Berariazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: atzeraemandako atikoa eta arotzeriak.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko harlandua.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: errotonda eta ataria aldatu gabe kontserbatuko dira jatorrizko elementu guztiekin.

D.- Nahitaezko lehengoratzek:

\* Pertsiana tolesgarriak.

\* Hala badagokio, aurreko aurreikuspenen aplikazioari lotuak, erregimen orokor hori arautzen dituztenak barne harturik.